

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpiko Agenda 21eko Foroa 2010eko martxoaren 4an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean
18:30etik 20:05era

*Arroza eta loreak zergatik erosten ditudan galdetzen didazu?
Arroza bizitzeko erosten dut
eta loreak bizitzeko arrazoi bat izateko.
Confucio*



Agenda:

Aranzadi elkarteko taldearen eskutik, gaur lehenengo urratsak eman ditugu Legazpiko natur eta kultur ondarearen inbentarioa osatzeko. Eta gure helburua argia da: *bertan bizi garelako daukagun ezaguera eta taldeko pertsonen pertzepzioa Aranzadi elkarteak egingo duen lan berezituari eta teknikoari gehitzea.*

Eta lortutako emaitza gehi taldeak bizi izan duena, akta honetan geratzen da jasota. Asmatu izana espero dugu!

Zeintzuk? Taldea, izen eta deiturekin

Honako hauek hartu dute parte gaurko saioan:

María Prieto (Buztintegi) ♦ Miriam Orozko ♦ Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ♦ Bixente Garmendia (zinegotzia) ♦ Ana Manzanos ♦ Montse Vallejo ♦ Floren Gutierrez ♦ Eneko Aseginolaza ♦ Jose Ramon Hernandez (Nagusilan) ♦ Rafael Gomez ♦ Pedro Barroso (Nagusilan) ♦ Junkal Fernandez ♦ Maria Jose Cantero (Nagusilan) ♦ Xabier Baztarrika ♦ Ana Albizu ♦ Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) ♦ Maria Jesus Etxeberria ♦ Iker Azurmendi ♦ Arantza Lobo (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Javier Iraeta (GKN Driveline) ♦ Iban Odriozola (Ilinti merkatarien elkarte) ♦ Iñaki Mauleon (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxerberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Joseba, Mari, Joana eta Asier (Aranzadi elkartekoak) ♦ Jone Azpeitia (Nekazaritza eta Hirigintza saileko teknikaria) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar (Prometea, SC).

Guztioi, eskerrik asko!!! Egunero, saio bakoitzean eta zuen parte hartzearekin, Legazpi eta bere etorkizuna axola zaizuela erakusten diguzuelako.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Hastera goaz!

Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa

Egingo den Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioan jasoko dena hobeto uler dezagun, Aranzadi elkarteko taldea dago gurekin gaurko saio honetan eta datozen hilabeteetan egingo duten lanaren fase desberdinak azaldu dizkigu.



Eta hori guztia azkeneko helburuari forma emateko: *Legazpiko Udalerri baliagarria izango zaion natura-ingurunea kudeatzeko erreminta lortzea*. Horretarako, Josebak azaldu digunaren arabera, hauek dira emango diren urratsak:

- *Informazioa jasoko da maila desberdinetan: geografia, natura, toponimia,...; horretarako informazio-iturri desberdinak erabiliko dira: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Legazpiko Udala,... Horrela, digitalizatutako informazioa erabiliko da eta euskarri gisa informazio geografikoaren sistemak jorratuko dira (Josebak irudien bitartez erakutsi digu hori guztia).*
- *Garrantziko geure informazioa sortzea bilatuko da, hala nola: 2005eko Legazpiko landarearen mapa gaurkotu, mehatxatutako floraren eta faunaren kartografia, paisaia eta lurzoruen erabilerak edo Legazpiko udalerria eremuka edo zonaldeka bereizi.*
- *Legazpiko eremu garrantzitsuenek eskain ditzaketen natura- eta paisaia-irizpideetatik abiatu eta jasotako informazioa aztertuko da. Adibidez, paisaiaren azterketa egiteko honako irizpideak hartzen dira kontutan: eremuaren atxikipen naturala, gizakiaren esku-hartze desberdinen arabera eta legazpiarren pertzepzioaren arabera sortu diren balio kulturalak (informazio hori modu desberdinetan jaso daiteke: inkesta bat eginez, kalean ekintzak burutuz,...).*
- *Eremu desberdinetarako proposatzen diren kudeaketa-irizpideak zehaztuko dira. Adibidez, eremuaren balioaren arabera, lursailen interesa zehaztuko da: zenbaitetan, interesgarria izan daiteke Udalak lur-eremuak eskuratzea edo, beste batzuetan, lursailak zaintzeko kontratuak egitea komeniko da, ...*

Lanaren emaitzak txosten tekniko batean eta digitalizatutako kartografia batean jasoko dira. Horrezaz gain, Inmak diosenaren arabera, herritarren artean zabalduko den dokumentu bat egingo da. Dokumentu horretan lanaren emaitza nagusiak jasoko dira

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

eta, horren bidez, Udalak udalerriko natur eta kultur ondarearen berri emango die herritarrei. Agiri hori baliagarria izango zaigu Agenda 21eko Foroan lantzeko ere!

Lan teknikoari gure ezaguera eta pertzepzioa gehituko diogu.

Taldeko kide bakoitzarentzat, zeintzuk dira Legazpiko eremuetatik eta naturaren ikuspegitik, interes gehien duten eremuak? Eta gure ustez, zeintzuk dira interes gehien dutenak?

Galdera horiekin eman diogu hasiera taldeko lanari. Legazpin garrantzitsuak diren eremu eta tokiak ezagutu nahi ditugu:

- Naturaren eta paisaiaren ikuspegitik aberatsak edo garrantzitsuak diren tokiak.
- Norberarentzako leku edo eremu bakoitzak duen garrantzia; txikitatik ezagutzen den lekua delako edo igandero bertara joaten delako edo ...

Argazki bikoitza atera nahi dugu: Argazki batek, arrosa kolorekoak, Legazpiko naturaren eta paisaiaren "ageriko" aberastasuna erakutsiko du; beste argazkiak, zuriak, pertsona bakoitzaren ñabardurak jasoko ditu (norberaren esperientziak, bizipenak, sentsibilitatea, oroitzenak,...)

Eta hori da egin duguna!



Eskuan papertxo arrosak eta zuriak ditugula, eremu eta leku garrantzitsuak bereizi ditugu: batzuk interes "nabarmena" edo "agerikoa" dutenak dira eta besteek "sumatutako" interesa. Kide bakoitzak bere azterna utzi du.

Eta hona hemen jaso dugun argazkia:

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean


Gaur, batik bat, garrantzitsua da papertxo bakoitza; Legazpin, herritar batentzako behintzat, garrantzitsua den toki edo eremu bat islatzen duelako. Eta badira makina bat! Zehatzago ezagut ditzagun!



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean


Naturaren ikuspegitik leku eta eremu interesgarrienak, "bistakoak"; papertxo arrosekin seinalatuta • **Zergatik?**



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Leku eta eremu interesgarrienak "sumatutakoak"; papertxo zuriekin seinalatuta. **Zergatik?**



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Nola batu Legazpiko beste pertsonen ezaguera?

Esan digutenez, Aranzadi elkarteko taldeak izango duen lan garrantzitsuenetako bat Legazpiko leku eta eremu interesgarrienak identifikatzea eta ezagutzea izango da. Lan hori udara bitartean egingo du eta leku interesgarri horiek bi alderditik bereiziko ditu: naturaren ikuspegitik garrantzitsuak direnak eta "ustez" legazpiarrentzat interesgarriak direnak. *Eta horretarako, egingo den lanaren berri Legazpiko ahots berriei eman behar zaie.*

Nola? Nori? Taldean hainbat ideia sortu dira eta, geroago, forma emango diegu. Hona hemen jasotakoa:

Nola? Zer egin?	Nori zuzenduak
<ul style="list-style-type: none"> Inkesta pertsonalak, kalean, Web orrian, kaleko ekintzaren bat burutzen denean,... 	<ul style="list-style-type: none"> Legazpiarrei, oro har.
<ul style="list-style-type: none"> Gaur hemen egin dugun bezalako mapa erraldoia egin daiteke, baina kalean. 	<ul style="list-style-type: none"> Legazpiarrei, oro har. Auzoka
<ul style="list-style-type: none"> Elkarrizketa pertsonalak edo mahai ingurua. 	<p>Ezaguera berezitua duten pertsonak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Mendi elkartea Baserritarrak Arrantzaleak Ehiztariak Perretxiko biltzaileak Mendilan Baso-ustiategiak dituzten pertsonak

Eta gainera:

- Lekukotza edo ekintza batzuk grabatu egin daitezke; horrela eginez gero, zabalkunderako materiala izango genuke.
- Gazteei laguntza eska diezaiekegu; adibidez, Sorgintxulo aisialdi taldeari.

Bukatu aurretik.... esker ona eta hitzordu berria

Ezin diogu bukaera eman gaurko tailerrari lan-taldeari eskerrak eman gabe, *egunetik egunera harritu egiten gaituzuelako eta zuengandik asko ikasten dugulako.*

Eta gaur bereziki, eskerrak eman nahi dizkiogu gure kamera profesionali (horrelakorik egiten duela bigarren aldia dela dioen arren, seguru gaude taldearen muina jaso duela); eta Legazpiko leku eta txoko berezien berri ematen digun gure irakasleari ere eskerrak eman nahi dizkiogu. Eskerrik asko bioi!

Eta bukatzeko, gure hurrengo hitzordua. Inmak hurrengo tailerra martxoaren 25ean izango dela ekarri digu gogora; tailer horretan, gure etxeetan eta bizilagunen komunitateetan energia aurrezteko martxan jar ditzakegun neurriak aztertuko ditugu. Horretarako, Energiaren Euskal Erakundeko (EVE) pertsona adituak izango ditugu gure artean. Izango dugu zer ikasi! Beraz, haien eta zuen zain geratzen gara!



Guztioi, eskerrik asko!!! Ohi bezala, lan bikaina!